# LEKEITIOKO FRONTEA

Errebeldeak/nazionalak gerra hasi eta batera nagusitu ziren Nafarroan eta Araban, Gipuzkoan, ordea, saiakerak huts egin zuen eta Bizkaian horixe ere ez. Baina bi hilabete besterik ez zuten behar izan Gipuzkoa hartzeko, paseo militarra bihurtu zen kanpaina lehen hile hauetan Errepublika ez baitzen gai izan Emilio Mola generalaren tropak, militar, errekete eta falangistez osatuak, geldiarazteko. Irailaren 13an Donostia hartu zuten, hiru aste beranduago, urriaren 4an, Ondarroa. Lekeitio izango zen hurrengoa Asterrikan frankisten erasoa lortu ez balute gelditzea. Ikusirik, erremediorik jarri ezean, nazionalak Bizkaian "erraz" sartuko zirela, abuztuaren amaieran Lekeitioko frontea sortu zen tropa nazionalei eusteko. Eta lortu ere lortu zuten, urriaren 12an Molak, estrategia aldatuz, tropa nazionalen aurreratzea geldiarazi zuen. Frontea Asterrikan egonkortu zen.

Han lehen hilabeteetan gertatutakoak, Patxi Juaristik ondo baino hobeto kontatzen ditu Kurik 3 aldizkarian argitaratu zen *Gerra zibila Lekeition eta Lekeitioko frontean* artikuluan. 1937ko apirilera arte mantendu zen berdinketa, 28an Lekeitiok amore eman zuen. Ekainaren 19an Bilbok.









Italiako artxibo militarretan aurkitutako planoa



La Messe de Campagne sur le Front Basque

PHOTOS CHIM

*Gudari* aldizkarian argitaratutakoa, 1937-4-15. *Regards* aldizkaritik ateratakoa.



Uribarren jauregia hospitale bihurtuta 1937ko urtarril inguruan.
Argazkia: David Seymour (Chim). *International Center of photography, icp.org*



Baserritarrak ortuariak saltzen Lekeitioko plazan, 1937 urtarril inguruan.
Argazkia: David Seymour (Chim). *International Center of photography, icp.org*



Andres Idigoras Villar (Olabeagatarra) eta Atzueta konpainiakoak Lekeition eta Zubietan atseden egunetan













**Eguna, 1937-3-20**
**EUN TA OGEI EGUN GUDA-OÑETAN**

Gaur ixango ba'litz lez gomutetan dot ze poz ta adoretsu urten gintzazan euzko-ikurriña aurrian daruagula. Gudara giñoyazan ta etziran ikusten arpegi itunak. Egun atan dana ixan san alaitasuna. Alde guztijetatik abesti aberkoyak entzuten ziran.

Itxas-ertzeko guda oñara bidaldu gindubezan ta Lekeitio'n egin dogu geure egon aldija. Eun ta ogei egun Itola, Anakabe eta Asterrika guda oñetan.

(...) Lekeitio'n, berton, be, egin doguz geure atseden alditsubak. Itxas-ertzeko uri polit onetan adizkide on-onak eta begikuak egin doguz. Iñoiz aiztuko dogu Lekeitio'tik eruan gebazan oroipen gomutagarriajak.

Olabeagatarra[1]

1 J. A. Idigoras, Atzueta konpainiako gudariak idatzitako artikulua.

Sabino Arana Fundazioa